

Eutanasia Legeak bost urte indarrean: DMD-DHE Euskadik aurrerapausoak nabarmendu eta erabilpen bidezkoagoa bermatzeko neurriak eskatu nahi ditu.

Elkarteak 2025ean eskatutako eta egindako eutanasietan egondako gorakada ondo baloratzen du, baina lurraldeen arteko arrakalaz, informazio faltaz eta eskubide hori benetan gauzatzeko oraindik dauden zailtasunez ohartarazi nahi du.

Bilbon, 2026ko ekainaren 25a.

Eutanasia Arautzeko Lege Organikoa (LORE) indarrean sartu zela bost urte bete direla-eta, Derecho a Morir Dignamente–Duintasunez Hiltzeko Eskubidea (DMD-DHE Euskadi) elkarteak Euskadiko Berme eta Ebaluazio Batzordearen 2025eko urteko txostenaren balorazioa egin du.

Legearen aplikazioak aurrera egiten jarraitzen duela aintzat hartzen du elkarteak, eta horri esker gero eta pertsona gehiagori haien bizitzaren amaieraz erabakitzeko eskubidea aitortzen zaiela. Hala ere, oraindik ere oztopo handiak daude osasun-prestazio hori modu ekitatiboan eta eraginkorrean eskuratzeko.

Euskadiko Berme eta Ebaluazio Batzordeak egindako txostenaren datuen arabera, 2025ean 137 eutanasia eskaera erregistratu ziren, eta aurreko urtean 126. Era berean, nabarmen igo zen ebaluaziorako Batzordera iritsi ziren espedienteen kopurua: 74 kasu izatetik 120 izatera pasatu ziren. Eskaera tramitatu bitartean hil zirenen kopurua ere jaitsi zen, eta handitu egin zen egindako eutanasien kopurua: 78 izan ziren guztira.

DMD-DHE Euskadirentzat datu hauek legearen aplikazioaren bilakaera positiboa eta prozeduren kudeaketaren hobekuntza islatzen dituzte. Hala ere, elkarteak uste du kopuruak oraindik txikiak direla eutansiaren arloan ibilbide sendoagoa duten beste herrialde batzuetakoekin alderatuta. Horrek agerian uzten du herritarrei zuzendutako informazioa eta osasun-profesionalen prestakuntza indartu beharra dagoela.

Elkarteak bereziki balioesten du ebazpen-epean gertatutako hobekuntza, baita lehen mailako arretak gero eta garrantzi handiagoa izatea eskatzaileei laguntzeko orduan ere. Hala ere, azpimarratu nahi du oraindik ere zailtasunak daudela prozedurari hasiera eman diezaioketen mediku arduradunak aurkitzeko, horrek dakartzan atzerapenekin eta prestazioa eskatzen dutenen sufrimenduaren luzapenekin.

DMD-DHE Euskadik ere kezka azaldu nahi du lurralde historikoen artean dauden ezberdintasunengatik. Bizkaian alde nabarmenak agertzen dira Araba eta Gipuzkoarekiko, bai eskaera kopuruari dagokionez, bai egindako eutanasia koporuruari dagokienez. Gainera, aldea handituz doa urtez urte. Hori dela eta, ezberdintasun horietan eragina izan dezaketen antolaketa- eta prestakuntza-faktoreen azterketa zehatza egitea eskatzen du elkarteak.

Atzemandako gabeziak azaltzen dituzten arrazoiei dagokienez, erakundearen ustez norberaren bizitzari buruz erabakitzeke eskubideari buruzko aurreiritzi kultural eta ideologikoek diraute, osasun-langile batzuk ez dira behar bezala trebatu, bizitzaren amaieran eskubideak zabaltzeko inplikazio instituzional eskasa da, eta heriotzaren inguruko tabu soziala mantentzen da.

Legearen aplikazio eraginkorrako baterantz aurrera egiteko, DMD-DHE Euskadik hiru proposamen hauek egiten ditu: 1) eutanasia-eskaerak aurkezteko osasun-zentro guztietan ondo iragarria egongo den bide gehigarri bat gaitzea, 2) eskaera ukatzen zaien pertsonentzako laguntza-mekanismoak ezartzea, eta 3) Euskadiko Heriotzaren Behatoki bat sortzea, heriotza duinerako eskubidea zer baldintzatan egiten den aztertu eta hobetu ahal izateko.

Horrez gain, Elkartek gogorarazi nahi du oraindik ere badirela sufrimendu jasanezinak pairatzen dituzten eta egungo legediak aurreikusten dituen kasuetatik kanpo geratzen diren pertsonak, hala nola egoera larri eta atzeraezinetan dauden adingabeak, edo, legeak jasotzen dituen kasuetan egon ez arren, haien bizitzak jada zentzurik ez duela uste dutenak. Elkartek aipamen berezia egin nahi die eutanasia eskatzean baztertuta jarraitzen duten buru gaixotasuna duten pertsonen, eta berresten du eskubideak zabaltzeko eta hiltzeko laguntza eskuratzeko edozein diskriminazio mota ezabatzeko duen konpromisoa.

Azkenik, DMD-DHE Euskadik elkartasuna adierazi nahi die hildako pertsonen eta haien familiei, batez ere hiltzean laguntza jasotzeko eskubidea nahi zuten baldintzetan erabili ezin izan zutenei, eta prest jarraitzen du herritarrei informazioa eta aholkularitza emateko bizitzaren amaierako eskubideen inguruan.

DMD-DHE Euskadi

@ dmdeuskadi@derechoamorrir.org

Araba: 688 885 161

 Bizkaia: 635 738 131

Gipuzkoa: 688 685 378

Cinco años de la Ley de Eutanasia: DMD-DHE Euskadi destaca los avances y reclama medidas para garantizar un acceso más equitativo.

La asociación valora el aumento de solicitudes y eutanasias realizadas en 2025, pero alerta de las desigualdades territoriales, la falta de información y los obstáculos que aún dificultan el ejercicio efectivo de este derecho.

Bilbao, 25 de junio de 2026

Con motivo del quinto aniversario de la entrada en vigor de la Ley Orgánica de Regulación de la Eutanasia (LORE), Derecho a Morir Dignamente–Duintasunez Hiltzeko Eskubidea de Euskadi (DMD-DHE Euskadi) ha realizado una valoración del informe anual de la Comisión de Garantía y Evaluación de Euskadi correspondiente a 2025.

La asociación reconoce que la aplicación de la ley continúa avanzando y que cada vez más personas pueden ejercer su derecho a decidir sobre el final de su vida. Sin embargo, considera que persisten importantes barreras que impiden un acceso plenamente igualitario y efectivo a esta prestación sanitaria.

Según los datos del informe realizado por la Comisión de Garantías y Evaluación de Euskadi, en 2025 se registraron 137 solicitudes de eutanasia, frente a las 126 del año anterior. Asimismo, aumentó significativamente el número de expedientes que llegaron a la Comisión para su evaluación, pasando de 74 a 120 casos. También se redujo el porcentaje de personas que fallecieron durante la tramitación de su solicitud y se incrementó el número de eutanasias realizadas, que ascendió a 78.

Para DMD-DHE Euskadi, estos datos reflejan una evolución positiva de la ley y una mejora en la gestión de los procedimientos. No obstante, la asociación considera que las cifras siguen siendo inferiores a las observadas en otros países con una trayectoria más consolidada en materia de eutanasia, lo que evidencia la necesidad de reforzar la información dirigida a la ciudadanía y la formación de los y las profesionales sanitarias.

La asociación valora especialmente la mejora de los tiempos de resolución y el creciente papel de la atención primaria en el acompañamiento de las personas solicitantes. Sin embargo, subraya que continúan existiendo dificultades para localizar profesionales responsables que puedan iniciar el procedimiento, una situación que puede provocar retrasos innecesarios y prolongar el sufrimiento de quienes solicitan la prestación.

DMD-DHE Euskadi muestra también su preocupación por las diferencias existentes entre los territorios históricos. La brecha observada en Bizkaia respecto a Araba y Gipuzkoa, tanto en número de solicitudes como en eutanasias realizadas, continúa aumentando año tras año. Por ello, la asociación reclama un análisis detallado de los factores organizativos y formativos que puedan estar influyendo en estas desigualdades.

Entre las causas que explican las carencias detectadas, la organización señala la persistencia de prejuicios culturales e ideológicos sobre el derecho a decidir sobre la propia vida, la insuficiente formación de parte del personal sanitario, la escasa implicación institucional en la difusión de los derechos al final de la vida y el mantenimiento del tabú social en torno a la muerte.

Para avanzar hacia una aplicación más efectiva de la ley, DMD-DHE Euskadi propone habilitar una vía adicional para presentar solicitudes de eutanasia, accesible desde todos los centros de salud, establecer mecanismos de apoyo para las personas cuyas solicitudes sean denegadas y crear un Observatorio de la Muerte de Euskadi que permita analizar y mejorar las condiciones en las que se ejerce el derecho a una muerte digna.

La asociación recuerda además que todavía existen personas que padecen sufrimientos insoportables y que quedan fuera de los supuestos contemplados por la legislación actual, como las y los menores en situaciones graves e irreversibles, o quienes, aun no estando en los supuestos que contempla la ley, consideran que su vida ya no tiene sentido. La asociación hace una mención especial a las personas con enfermedad mental que siguen sufriendo estigma cuando solicitan la eutanasia y reitera su compromiso con la ampliación de derechos y con la eliminación de cualquier forma de discriminación en el acceso a la ayuda para morir.

Finalmente, DMD-DHE Euskadi expresa su solidaridad con las personas fallecidas y sus familias, especialmente con aquellas que no pudieron ejercer este derecho en las condiciones que hubieran deseado, y reitera su disposición a ofrecer información y asesoramiento a la ciudadanía sobre los derechos al final de la vida.

DMD-DHE Euskadi

@ dmdeuskadi@derechoamorir.org

Araba: 688 885 161
Bizkaia: 635 738 131
Gipuzkoa: 688 685 378